

Komunikabideak, nazioa eta boterea

Santi Urrutia
EHUko irakaslea

Iritzi Publikoa deitzen den hori gizarte modernoen ezaugarrietako bat da, eta komunikabideek kanalizatzen dutela esan ohi da. Izatez, boterea legitimatzeko zutabe bat gehiago da, eta honekin hau adierazten da: botereak beti nahi luke berak dioena Iritzi Publikotzat hartua izan dadin. Hain zuzen hori neurri zabalean gertatzen ez denean boterearen legitimazioa zalantzan jartzen den seinalea da. Bestalde komunikabideek mundu osorako "leiho" izan arren, haien erreferentzia nagusia eta behinena nazioa da. Eta nazio horretako jendea elkarrekin lotzeko tresna dira gaurregun. Objektibitatearen arazoa ere ezin da ulertu askotan nazioarekiko lotura hori alde batera utzita, eta hau gatazkak daudenean argiago ikusten da, esate baterako Jugoslavia zaharreko adibidean. Horrelako egoeretan nazio bati edo besteari leiala izateak baldintzatzen baitu *egia*.

The Public Opinion is a characteristic of the modern societies, and it is said that the mass media conduce it. In fact it is a support to legitimize the power, and that means: the power always want its opinion to become the Public Opinion. When that does not happen in an extended way, this is a sign that the legitimacy of the power is questioned. An other point is despite the mass media are a "window" to the world, their most important reference is the nation. Today the mass media are the instrument to relationate the people of the nation. Also the issue of the objectivity is impossible to understand without taking in consideration this link, and this is clearer in the conflictive times like the example of the old Yugoslavia. In those situations the *true* is conditioned by the adhesion to one nation or to another.

Nire herriko Etzebarrixa zaharrak haxe esaten zuen norbait egunkari bat eskuan zuela ikustean: *periodikua astoaren modukoa da, gainean jartzen diotena eramaten du.*

Hark erdi barreka egiten zuen afirmazio hau, baina urteek igaro behar izan dute kontura nadin nire herriko Etzebarrixa hura jakintsu handia zela. Bazekien zer zen gauzarik behinena komunikabideak aztertzerakoan: nor den bere jabea, eta honek zertarako nahi duen erabili periodikua.

Iritzi Publikoa zer den

Beatriz Mirandak azaltzen digu zer uler daitekeen Iritzi Publikoaz mundu modernoan (Miranda 1991): Iritzi Publikoa gizarteari buruzko errepresentazio edo ideia bat da non gizarte hori arlo politikoaz edo jende guztiaren intereseko gauzez mintzatzen azaltzen zaigun. Hori gertatzen denean Gizarteari *Iritzi Publikoa* deitzen zaio: Iritzi Publikoa da Gizartea, guztien intereseko gauzez hitz egiten.

Baina hasteko egin dezakegun galderarik sinpleena da ea nor izaten den guztien intereseko gauzez mintzatzen den hori. Eta erantzuna ere sinplea da: batez ere, boterean dagoen agintaria. Agintariak beti bilatzen du berak dioena Iritzi Publiko bezala ulertua izan dadin. Haxe da hain zuzen agintariaren edo boterearen legitimitatea zer den jakiteko era bat. Botereak esaten duena jendeak Iritzi Publikotzat hartzen badu botere horren legitimitazioa arrakastatsua da. Eta boterea Iritzi Publiko horren bidez legitimatuta dagoen neurrian jendeak pentsatuko

du hura eta haren aginduak obeditzea merezi duela.

Argi dago Iritzi Publikoaz esan dugun honek baduela zerikusirik Etzebarrixa zaharrak egiten zuen gonbarazioarekin. Edozein botereren esentzian dago bere buruari buruzko apologia egitea. Gehienetan arrakastaz sortzen ditu sineskera batzuk bai bere burua legitimatzeko, eta bai bere ekintzak eta aginduak legitimatzeko ere. Hau da, edozein botereren lehen ahalmena aldeko Iritzi Publikoa sortzea da. *Gobernatzea sinestaraztea da* zioen Makiabelik, eta esan nahi zuen botere guztiek dituztela beren eskuetan autolegitimatzeko eta boterea gehitzeko beharrezkoak diren mekanismoak, besteak beste, komunikabideak. Hau da, esango zukeen Etzebarrixak, *astoak* gainean jarri nahi zaien edozein zama eramateko prest.

Estatu modernoan hiru zutaberen gainean eraikita dago: Nazioa, Demokrazia eta Iritzi Publikoa. Zentzu honetan Iritzi Publikoa Nazioaren ahotsa da. Edozein demokrazia eraikitzeke lehen urratsa *gu* baten eraikuntza da, *hasierako printzipioez* lotutako Iritzi Publikoa sortzea, oinarrizko sinesmenak, gizakiak batzeko erabil daitekeen eskema minimoa jasotzea. Beatriz Mirandak dio aurreko hiru baldintzak ondo betetzen dituzten demokrazietan herria oso batuta dagoela eta jendeak elkarrekin dituen istiluek ez dutela batasun hori zalantzan jartzen, diskutitzen dena inoiz ere ez delako funtsezkoena. Gauza funtsezkoenez diskutitzen bada, hau da, Nazioarena ez badago argi, esan nahi du komunitate politiko horrek ez dituela oinarri sendoak. Gatazka dago eta gatazka horrek kolokan jartzen ditu lehen aipatutako hiru zutabeak:

Nazioa, Demokrazia eta Iritzi Publikoa.

Iritzi Publikoa eta komunikabideak

Iritzi Publikoa ez da bakarrik komunikabideak erabiliz gauzatzen dena, ezta gutxiagorik ere. Komunikabideen aurretiaz ez badago Iritzi Publiko bakarra, hau da, lehen aipatutako gauzarik funtsezkoenak diskutitzen direlako, komunikabideek ez dute egoera hori konponduko. Komunikabideen lana da, besteak beste, instituzio eta talde sozialen bozgorailua izatea, hauen guztien zeregina lagunduz eta indartuz. Zenbaitetan diskurtso batzuen arabera badirudi komunikabideen boterea ahalguztiduna dela, eta hor ahazten da aurretiaz beste instantziek betetzen duten lana, horrela kritikatik ihes egiten dutelarik. Komunikabideen diskurtsoek arrakasta izan dezaten, eta zeozer indar dezaten, lehenago diskurtso horietan sinesteko jarrerak egon behar du. Komunikabideetan azaldutako espainiar nazionalismoaren diskurtsoak euskal nazionalista bat konbentzi ote lezake?

Iritzi Publikoaren arloan instituzioen lehen lana hauxe da: kolektibitateak izan dezan errepresentazio bat non bere burua unitate moduan agertzen den. *Gu* bat sortu, hortik abiatuta politika bakean egin ahal izateko. Horretarako, *gu* hori zalantzan jartzen duen edozein gauza elimintzeko joera egongo da, edo ahultzekoa gutxienez. Hortik dator, hain zuzen, kolektiboen arteko nortasun-diferentzien pertsekuzioa, batzuetan gogorra, bestetan suabea eta disimulatua, ahalegin etengabea burutzen delarik diferentziez aritu beharrean antzekotasunak azpimarratzeko. Hizkuntza eta erlijio

desberdinek, joera batutzaileen aurrean bizirik irautea lortu duten leku horietan, borondate politiko demokratikoaren azpian dagoen *gu* hori zalantzan jar dezakete, eta kontzientzia kritikoaren sorrera piztu Estatuko instituzioen diskurtso autolegitimatzailearen aurrean, eta jakina, baita komunikabideen aurrean ere.

Komunikabideak eta Nazioa

Informazio-sareen zabalkuntzak estatu eta nazio arteko mugak gero eta ahulago bihurtzen omen ditu, hori dela eta muga horiek gero eta zentzu gutxiagoz ikusten omen dira. Behintzat, hori dio iritzi zabaldu batek.

Mc Luhan oso ezaguna dugu berak asmatutako esaera sujerente batzuentzat. Bere azken liburuaren izenburua hauxe da: *The Global Village*, nolabait itzultzeko "mundua auzune". Termino hau gaurko komunikabideen sare gero eta zabalagoek mundu osoa komunitate bakar bihurtzen dutela adierazteko erabiltzen da.

Egia da komunikabideek mundu osoko jendea jarri dutela inoiz baino gehiago elkarrekin harremanetan merkantziak saltzeko eta erosteko. Horrek mundu osoa komunitate bakar bihurtzen ari dela esan nahi ote du? Jendeak ere bere buruaz egiten duen errepresentazioan uste dezake "mundutarra" dela, "europarra" dela (Europako Elkartearen kasuan), etab. Bere burua oso europartzat duenari galdetuko nioke ea prest legokeen "Europa" horretan edozein erabaki gehiengo hartzeko. Esaterako, gehiengoak erabakiko balu guztiok jakin beharreko hizkuntza, eta hezkuntza-sisteman erabili beha-

rrekoa, alemana edo ingelesa dela, kasurako, hori onartzeko. Seguru nago oso jende gutxi egongo litzatekeela prest horretarako. Horrek adierazten duena da Europako Komunitatea, nortasun kolektibo europarra eta antzeko gauzak gehiago direla gauza imajinarioak errealak baino. Azken batean edonon Nazio bat existitzen dela frogatzen duen adierazle bat horixe da: kolektibitate horretako jendeak ontzat du erabakiak lurralde horretan gehiengo hartzea, eta gehiengoak esaten duena onartzeko prest dago, emaitzarekin ados egon ala ez.

Hemen landuko dugun ideia bat hauxe da, hain zuzen: komunikabideen erreferentzia ez dela mundu osoa, edo Europa, nahiz eta mundu osoko gauzez hitz egin. Haien erreferentzia komunitate bat da. Eta erreferentziatzat eduki dezaketen komunitate zabalena nazionala da. Komunikabideek erreferentzia moduan hartzen duten komunitate horrentzat aritzen dira. Eta bide batez, hiritarren elkarren arteko lotura errazten dute.

Komunikabideak lotura sozialerako tresna

Komunikabideek aukerak gehitzen dituzte norbanakoak, edo hiritarrak gizartearekin harreman etengabearen egon daitezen. Komunikabideek elkarren artean "uztartzen" dituzte norbanakoak, gizartea "isladatu" egiten zaie medio horietan eta komunitate nazionalarekin daukaten identifikazioa indartzeko laguntzen dute.

Tocqueville-k honako hau esaten zuen, prentsaren papera hauxe zela, talde baten partaideak ziren norbanakoak elkarrekin kontaktuan eta

informatuta edukitzea. Talde bateko partaideentzat, zioen berak (Tocqueville 1989: II, 100-101), garrantzizkoa da *egunero hitz egiteko medioa bilatzea elkar ikusi gabe, eta batera ihardutea bildu beharrik eduki gabe*.

70eko hamarkadaren hasieran *mass communication research*-en ikertzaile jadanik klasikoek ere, Katz-ek adibidez, komunikabideen funtzio honetaz hitz egin zuten. Autore honek 1973an Israelen egindako ikerketa batek emaitza hau adierazten zuen, telebista erabiltzen zutela herrialde hartako norbanakoek norberaren eta gizartearen arteko loturak indartzeko, gizartea bera orokorrean ulertuta, edo familia, lagun-taldea edo instituzio moduan. Katz-ek apuntatzen du komunikabideek beste edozein tresnak baino hobeto betetzen dutela hiritar gehienen norantza soziopolitikoaren beharrezana (cf. Wolf 1991: 77-90).

Wolton-ek batez ere telebistari buruz hitz egiten du, eta beronen zeregin lotura-egileari garrantzi berezia eskaintzen dio, baina ez du esaten mugarik gabeko loturaz ari denik (Wolton 1992: 128):

Honetarako esparrua batez ere eremu nazionala da. Ze telebista munduari zabaltzeko tresna aparta izanik, komunitate nazionalaren lotura soziala ere bada.

Wolton-en ustez telebistak harreman sozial berezi baterako aukera ematen die ikusleei, kontutan hartuz gainera ikusten duten gauza hori beraiek bizi diren gizartearen errepresentazio moduko bat dela. Ikuslea (Wolton 1992: 129)

lotu egiten zaio publiko horri zeina potentzialki oso zabala eta ezezaguna

baita eta denbora berean begiratzeko ari baita, eta horrela publiko horrekin ikusi ezin den lotura du.

Ikuslearen aldetik zerbait baterakoan parte hartzen duten sentsazioa dago; ikusleak pentsatzen du, edo sentitzen, ez dela programa bat ikusten ari den bakarra, badaki beste batzuk ere begira daudela, eta aldiberean beste guzti horiek ere gauza bera pentsatzen dute. Wolton-ek uste du *lotura espekular eta ixila dela*. Hau da, gizartearen telebistan isladatua ikusten da, honekin

bere buruaren errepresentazioa eskaintzen diolarik. Eta gizarteari bere buruaz gogoeta eginarazirik, telebistak ez du bakarrik irudia eta errepresentazioa sortzen; lotura ere eskaintzen die denbora berean begiratzeko ari diren guzti horiei guztiei (*ibidem*).

Honekin pentsa daiteke Wolton-entzat telebista, beste komunikabideekin batera, gizarteari lotura hori eskaintzen dion elementu bakarra dela. Baina ez da hori bere iritzia:

Halere telebista ez da instituzio bat eskola, armada edo Eliza bezala. Lotura sozialaren arazoan era askoz ere flexibleagoan lan egiten du, ze zeregin librea da, eta orokorki denborapasara zuzendua (*ibidem*).

Baina denbora osoan Wolton ari da azpimarratzen komunikabideek, eta telebistak, marko nazionalen funtzionatzen dutela. Berak adierazten duenez telebista europarrak hitz egitean honek bakarrik nortasun nazionalaren esparruan funtziona dezake, eta argi uzten du telebista europarra bideraezina dela ez dagoelako "nortasun europarrak". Beraz telebistak lotura sozialerako

balioko badu horrelako errealitatearen barruan egon behar du (Wolton 1992: 128):

Itxurak gora-behera, telebista ez da komunikatzeko tresna unibertuala: komunikatzeko tresna da ezarritako nortasun bat oinarritzat hartuz.

Wolton-en ustez (1992: 90) telebistak ez du gaitasunik nortasun bat zabaltzeko beste desberdin bat dagoen tokian:

honetarako motorea oso gutxitan izaten da komunikazioa: honek lagundu egiten du bakarrik, eta zabaldu ere egiten du jadanik dagoen mobilizazio bat eta bere logika propioari erantzuten diona.

Hau da, ez da pentsatu behar telebista, kasu honetan, ahalguztiduna denik.

Komunikabideak eta objektibitatea

Orain arte esandako guztiaren argitan beste puntu interesgarri bat azter genezake. Objektibitatearen defendatzaile sutsuek esango lukete informazioaren egiazkotasunak ez duela zertan egon aurretiaz aipatutako guztiak baldintzatua, edo determinatua. Ikus dezagun, halere, zer gertatzen den objektibitatearen arazo honekin aipatutako koordinadak kontutan hartuta.

Hasieratik egingo dudana afirmazioa hau da: ezin da ulertu objektibitatearen problema aurreko erreferentzia guztiak ahaztuta. Objektibitatea oso lotuta dago nortasun kolektiboaren fenomenoarekin, esparru nazionalarekin, eta bere defentsarekin. Arlo hauetan gatazkak badaude informazioaren objektibitatea

ulertzeko bahe bereziak jarriko dira martxan. Ikus dezagun zer gertatu den komunikabideekin gaur eguneko gatazka nazional gogorren inguru batean, Jugoslavia zaharrean hain zuzen.

Adibide bat: Jugoslavia zaharreko gerra

Montse Armengou kazetariak idatzi du (1994: 13) Jugoslavia zaharreko gerretan erruaren alde bat komunikabideek izan dutela, nazionalismoak sendotu dituztelako eta komunitateen arteko gorrotoak gehitu. Nik ez dut horrelako ondorioak aterako, baina ikus dezagun zer esaten duen.

Galdera bat eginez hasten da. Komunikabiderik gabe, eta batez ere, telebistarik gabe, Bosniako gerra hasiko ote zen? Egia esan zaila izango zen, zeren medioek zeregin erabakigarria bete baitute. Nazionalismorik muturrekoenekin izan dituzten loturengatik azken urteetan gatazka belikorako oinarriak jarri dituzte.

Aurreko afirmazioan ematen da jakintzat komunikabideek paper desberdina joka dezaketela honelako egoeretan. Nire iritzia da komunikabideak gatazka-egoeran beti lerratzen direla nazio, elkarte edo talderen batekin. Eta komunikabideak komunitate, talde, edo elkartearen eraginetik kanpo aztertu nahi izatea fantasia hutsa da. Komunikabideen erreferentziak hortxe daude, eta gatazka-egoeretan talde horien ikuspuntuak defendatzeko daude. Ez dago komunikabiderik parametro horietatik kanpo funtzionatzen duenik. Antzinako mezulariak erregeak agindutako mezuak beren erara emateko

libre zirela esatea litzateke. Ez, jakina, erregeak esandako erara eman behar zizkieten mezuak hartzaileari.

Zein ote da komunikabideen funtzionatzeko eredia honelako gatazka gogorren garaietan? Nik esango nuke lehen eta behin komunikabideek beren komunitatearekiko leialak izan beharra dutela, mezulariak erregearekiko leiala izan behar duen bezala. Eta gatazka-egoeretan leialtasun horrek egia delakoa ikuspegi berezian barruan ezartzera eramango du nahitaez.

Goazen Jugoslavia zaharreko adibidearekin aurrera. 92ko udan Kazetarien Nazioarteko Erakundeko misio bat Jugoslavia zaharreko errepublika batetik bestera ibili zen eta ondorio negargarriekin itzuli zen. Manipulazioa amaigabea da medioetan, bai serbiar eta kroaziarretan, eta medioen gerra-krimenez hitz egiteraino heltzen dira, medioek ere beren Nuremberg beharko luketela esanez.

Kazetari asko ez zegoen prest manipulazio-lan hori egiteko. Hau da, mezulariak ezetza esan diezaioke erregearen aginduari, bere printzipioen kontra doalako. Baina hori egiten badu badaki zer espero dezakeen. Hasteko, erregeak ez dio gauza gehiago aginduko, eta ezleialtzat hartuko du, eta agian traidoretzat ere bai.

Jugoslavia zaharreko kasuan agertzen den moduan, gerra-egoeran komunikabideak agintean dagoenaren arma bat gehiago bihurtzen dira. Milosevic serbiarren liderrak bazekien Serbiako komunikabideek beraren alde egin ala ez, nolako diferentzia egon zitekeen berarentzat. 86an Komunisten Ligan goian jarri zuten

Milosevic, eta berehala Serbiako Telebistan errepresioa hasi zen. Ordurarte Jugoslavia zaharreko errepubliketako telebista guztiek programen elkartrukea egiten zuten, etnia eta kultura desberdinak elkarrekin lotzeko ahaleginean. Honelako programak desagertu egin ziren Serbiako telebistatik. Kroaziarrek gauza bera egin zuten handik gutxira. Serbiako telebistako diskurtsoa tentsio handiagoko bihurtzen zen. Errepublika guztiak txarrak dira, Serbia izan ezik, "besteek zapaldua dagoelako". Serbiar nazionalismoa biktima gisa agertzen da.

Hizkuntza, bestea izendatzeko era, etsaia, gero eta basatiago bihurtzen da: esloveniar guztiak faxistak dira, kroaziarrek naziekin lotutako "ustatxi"-ak, serbiarrei erasotzeko prest daudenak. Bigarren Mundu-Gerrako beldur guztiak piztu egiten dira, dena kutsatuz, pozoinduz. Serbiako telebistak egunero ematen ditu kroaziarrek Bigarren Mundu-Gerran egin zituzten hilketak eta basatikeriak. Prest dago giroa Kroaziaren aurka gerra hasteko.

Horrekin batera urte hauetan hasten da prestatzen Bosniako gerra ere. Bosniarrak ez dira jadanik bosniar, musulmanak baizik, geroago fundamentalistak izango dira, gero turkiarrak edo mairuak, eta azkenez, txerriak, besterik gabe.

Honekin guztiarekin batera Serbiako telebistan eta irradian kazetari batzuk "komisario politiko" moduko papera betetzen jartzen dira, eta kazetari kritikoak postuetatik kentzen. Bosniako gerra hasita 92an zerrenda batzuk egin ziren aberriaren traidoretzat jotzen diren kazetariekin, eta hor sartzen dira izen serbiarra ez dutenak, huelgaren batean parte hartu dutenak,

azken batean kazetari kritiko guztiak. 93ko urtarrilean 1.500 kazetari kalera bota zituzten serbiar telebistatik eta irratiatik.

Baina hau ez da bakarrik serbiarren kasua izan. Kroaziarrek oso-osoan jarraitu dute serbiarren bidea, komunikabideak propaganda egiteko erabiliz gerra justifikatzeko. Serbiarrek beren medioetan kroaziarrek Vatikanoa eta alemanen arteko konplotean lotuta dauden "ustatxiak" direla esaten bazuten, azken hauek adieraziko dute serbiarrak Jugoslavia komunista zaharra berpiztu nahi duten "chetnik"-ak direla. Honelako ikuspegiak zabalteko errepublika bietan komunikabide nagusien goian boterearen transmisio-uhal bezala funtzionatzen duten kazetari komisario politikoak daude. Tudjam-ek, Kroaziako buruak, 90ean hauteskundeak irabazi bezain laster medioak gerrarako arma bezala erabiltzeko esplotazio ideologikoari hasiera eman zion. Kroaziarren 1990eko konstituzioak prentsa- eta adierazpen-askatasuna gordetzen ditu, zentsura debekatzen du, eta bere 39. artikuluan hauxe dio:

debekatu eta zigortu egingo da gerrarako, biolentziarako, arrazakeriarako edo gorroto nazional eta erlijiosorako edozein dei, eta intolerantziako edozein modu.

Baina errealitatea legetik benetan urrun. Kroazian, Serbian gertaturiko presio, intimidazio, aberriarekiko txantajea, zentsura eta autozentsura berberak izan dira. Kanpotik heltzen diren albiste guztiak agentzia ofizial batek zentralizatzen ditu, eta, Montse Armengou-k dioenez "izaera nazional-xenofobia" ematen zaie. Informazioaren Ministerio bat dago Kroazian, albiste asko sortzen duena, eta

boterean dagoen alderdiari eustea du helburu. Justifikazioa hauxe da: "iraganean itxuragabetuak izan ziren gertakizun historikoak ondo azaldu beharra."

Hemen ikusten da Nazioen erai-kuntza-prozesuan gertatzen diren fenomenoetan bete-betean parte hartu beharra dutela komunikabideek. Hauek ezin dute prozesu horietatik kanpo funtzionatu objektibitate neutroaren izenean. Nazioak ez dira neutralak, Boterea ere ez, eta Historia ere ez. Inozoa litzateke pentsatzea komunikabideak neutralak izan daitezkeela. Agian kanpotik datozen kazetariak izan daitezke, barrukoak baino gehiago behintzat, baina bertakoek botere batarekin edo bestearekin lerratu behar dute, komunitate bat edo bestearen partaide izan eta historia bat edo bestea eraiki. Hemen isladatzen dira gatazka nazionalak daudenean martxan hasten diren prozesuak: *gu* delakoa finkatu behar da, historia propioa eta agian glorioso eraikiz. Gurea glorioso bada, besteak makurra izan behar. Eta kazetariak beren kontribuzioa egin behar diote prozesuari.

Jugoslavia zaharreko lezioa

Montse Armengou-k (1994: 16) irakaspen hau dakar askoren iritzi moduan, oraingoan Bosniako gerrari aplikatuz:

Politiko demokratek, kazetari independente askok, boterearen zerbitzura jarri ez diren intelektualek eta Jugoslavia zaharreko gizarte zibilaren parte on batek uste du Bosnian gertatu dena adibide bat dela ikusteko politikari ultranazionalistek komunikabideak erabili egin dituztela herria nahi ez zuen gerrara eramateko.

Jugoslavia zaharrean medioen manipulazioak asko lagundu du etnia, kultura eta erlijio askoko gizarte hartan elkarbitza apurtzeko.

Hau da, komunikabideek erantzukizun aparta dutela gerra horretan.

Iruditzen zait iritzi honetan ahaztu egiten dela zer dagoen lehenago, boterea ala komunikabidea bera. Hemen ez da azaltzen Etzebarrixa zaharrak azal dutako jakituria hura, hau da, *astoak gainean jartzen diotena eramaten duela*.

Zer espero dugu egin zezaketela Jugoslaviako komunikabideek? Ezezko borobila agertu boterean dagoenari? Bai, teoriarik mezulariak beti eman diezaioke ezetza erregeari. Baina soluzioa ere nahikoa erreza da erregearentzat, beste mezulari egokiago bat bilatzea. Horixe egingo zuketan, seguruenik, Milosevic eta Tudjam-ek ere.

Gainera iritzi horren arabera uste da kazetariak beren profesioko kodeei integritate handiz euts diezaiaketela, objektibotasunaren heroiak izan daitezkeela. Gizakien eta komunitate nazionalen errealitateak ez du, ordea, horrela funtzionatzen: alde batetik kazetari gehienek iragazki bereziak izango dituzte begietan nahitaez beren nazioa sartuta dagoen gatazka gogor batean. Nazioaren alde egitea delako betebeharrak nagusia, horrela egin ezean traidore sentituko lirateke, eta norbaitek beren profesioko printzipioen eta nazioaren helburuen arteko zalantzak baditu traidoretzat hartua izateko beldurrak laster jarriko du agintarien esanetara. Bestetik kazetarietako zenbaitek ez dio ukorik egingo boterearen zati bat bere eskuetan izateari.

Gutxiengo batek, agintarien aurkako oposizioarekin lotuta dagoenak, informazio desberdina emateko ahaleginak egingo ditu. Botereak abertzale epelak direla esango du, agian traidore eta etsaiaren laguntzaile direla ere bai. Gerta daiteke barruko oposizioa indartsua izatea eta agintariek ez dute izango komunikabide horiei baketan utzi beharra baino. Oposizioa oso indartsua ez bada ondo etor lekiok botereari komunikabide kritikoak egotea, ze horrela adierazpen-askatasuna eta sistemaren sinesgarritasuna gehi bailitezke.

Objektibitatearen beste ikuspegi batzuk

Ikertzaile askok azpimarratzen duen gauza da komunikabideentzat errazago izaten dela kanpoko gertakizunak objektibotasunez aztertzea. Behintzat, gertakizun horiek ez badute inolako eraginik norberaren segurtasunean, edo ongizatean. Baina ia ezinezkoa da objektibotasun-maila berberari eustea norbera sartuta badago gatazkan, edo gatazkak komunikabidearengan edo bere inguruan eragin nabarmena badu.

Inoiz esan da komunikabideak gai direla kasu batzuetan norberaren komunitateko boterearekin kritiko azaltzeko. Estatu Batuetako kasuan, 60etako azkenetan eta 70etako hasieran, komunikabideek jarri omen zuten hiritarren begibistan nolako basatikeriak ari ziren egiten Vietnam-en. Honek gerraren amaiera azkartu omen zuen. Ez da hau hala ere Noam Chomsky-ren iritzia¹.

Chomsky-ren ustez komunikabideek gerra ona dela esaten dute irabazten den neurrian, eta txarra dela galtzen denean. Vietnam-eko kasuarekin ere hori gertatu omen zen. Horren arabera boterearekiko kritiko edo ez izatearen arrazoia boterearen efikazian datza. Efikaza bada, ondo dago hark egiten duena, ez bada efikaza, txarto. Objektibotasunaren arazoa hemen, beraz, efikaziaren bahetik igarotzen da.

Estatubatuarren kasuan Chomsky-ren teoria indartuko lukeen beste gertakizun bat Panamako inbasioa da. Ondo atera zen Estatu Batuetako agintarientzat inbasio hau. Han ere interes bitxiak omen zeuden, CIA tarteko izanik aurreko urteetan Noriega lagundua izan zen nahiz eta narkotrafikatzailea zela jakin, eta ondoren iparramerikarren interesak ez zirela era egokian betetzen eta Panamako boteretik kendu nahi izan zuten, hain zuzen narkotrafikatzailea zelako aitzakiarekin. Estatu Batuetako kazetari batzuek Panamako inbasioaren beste aurpegi hau azaltzen duen dokumentala egin dute oraintsu. Oraindik ez du Estatu Batuetako telebistakate batek ere eman dokumental hori.

Gai-ordenaren hipotesia, boterea eta oposizioa

Azkenengo urteetan komunikabideen eraginari buruz modan jarri den teoria bat horixe da, *agenda setting* edo gai-ordenaren hipotesia delakoa. Komunikabideek ez omen dute hainbesteko arrakastarik jendeari gertakizunei buruzko interpretazioak inposatzeko, baina bai osteraz zeintzuk

1. *Las grandes mentiras del s. XX* dokumentalean elkarrizketa batean Noam Chomsky-k egindako adierazpenak. TVEko *Documentos TV* programan emana.

gai diren inportanteak esateko. Ez omen dute eragin handiegirik *nola* pentsatu behar den gauza batez zabaltzean, baina bai aldiz *zertaz* pentsatu edo hitz egin behar den adieraztean. Hortaz komunikabideek beren gai-ordena ezartzen dute. Komunikabideak etengabe aukeratzeko ari dira zeintzuk gai edo gertakizun plazaratu eta zeintzuk ez. Galdera da ea zeren arabera egiten duten hori.

Esan ohi da berrien aukeraketa egiteko inportantziaren irizpidea erabiltzen dela. Hortaz komunikabideek gauzarik inportanteenak aukeratzeko dituzte beren irakurle edo ikusle-entzuleentzat. Eta hala izan daiteke, agian, egoera normaletan eta eguneroko gauzetan. Baina argi ikus daiteke komunikabideek ez dutela inportantziaren irizpide hau berdin erabiltzen uneoro, esate baterako Nazioaren inguruko gatazkak sortzen direnean, edo boterea legitimatzeko modua zalantzan jartzen denean. Honelako egoeran komunikabideek erabaki dezakete garrantzizkoa den gauza bat ez zabaltzea. Aipatu dugun Jugoslaviako kasuan bezala, botereak bere esku dauden tresnak erabiltzen ditu kontrako ahotsak isiltzeko, eta askotan ez ditu plazaratzen Nazioaren, edo talde politikoaren kontra doazen errealitateak.

Inportantziaren irizpidea beraz oso arbitrarioa gertatzen da hor. Jugoslaviako kasua alde batera utzita edozein lekutan gertatzen da oposizioari garrantzizkoak iruditzen zaizkion gauzak ez direla era egokian agertzen, edo batere agertzen agintearekin lerratuta dauden komunikabideetan. Orohar nik uste dut oposizioak jokabi-

de bi izan ditzakeela komunikabideen aurrean. Batzuetan, gure gaurko gizartean bezala, oposizioko talde politikoak aspertu gabe aritzen dira esaten komunikabideek, batez ere publikoek, ez dituztela behar beste zabaltzen beren ekintzak edo ikuspegiak. Legea aipatuko dute horretarako, horren arabera komunikabide publikoek guztien ikuspegiak demokratikoki azaltzeko balio behar dutela aldarrikatuz.

Agian boterearen arrakastarik handienetarikoa izan daiteke oposizioko taldeak horrela kezuka azaltzea. Oposizioak dagoen sisteman sinesten duen seinalea da, posible dela gauzak beste era batera egitea jendeari ideia batzuk edo besteak adierazteko aukerarik badago.

Beste batzuetan oposizioak ez du ardurarik handirik dauden komunikabideek egiten dutenaz. Komunikabide ofizialek inolako sinesgarritasunik ez duten garaia dira. Orduan oposizioak beste modu batzuk bilatzen ditu beren ahotsa zabaltzeko, komunikabide berriak sortzen ditu, edo daudenak eskuratzeko ahaleginak egiten. Gure artean, frankismoaren garaian oposizioa ez zen ibiltzen beren ikuspegia komunikabideetan azaltzeko aparteko esfortzurik egiten. Bazekien zeuden komunikabide ofizialekin ez zegoela zer eginik. Eta nahiz eta komunikabide berriak martxan jartzea legez kanpoko izan, bilatu zituen mila bide egoera eta gertakizunen beste ikuspegia zabaltzeko. Jende askok gogo handiz irakurtzen zituen legez kanpoko taldeek ateratako paper klandestinoak, han benetako errealitatea azaltzen zela pentsatuz.

Bibliografía

- Armengou, M., (1994): "Cómo se construye una guerra", *Vox Populi*, 2, 13 [Lehenago *Viejo Topo* aldizkarian].
- Miranda, B., (1991): "Acerca de la Opinión Pública", *Herria 2000 Eliza*, 118, 22-25.
- Tocqueville, A., (1989): *La democracia en América*, Alianza, Madril.
- Wolton, M., (1991): *La investigación de la comunicación de masas*, Paidós, Bartzelona.
- Wolton, D., (1992): *Elogio del gran público. Una teoría crítica de la televisión*, Gedisa, Bartzelona.